

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2017ko URRIAREN 5ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2017ko urriaren 5ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbietta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre
Ander Leon Nanclares
Angel Serrano Martinez
Aritz Sarria Saraqueta


EZ DA BERTARATZEN: Felix Joaquin Asensio Robles

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. **Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:**
 - **2017ko irailaren 7an egindako ohiko bilkura./ Sesión ordinaria de fecha 7 de septiembre de 2017.**
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
3. **2018 ekitaldirako Udal Ordenantza Fiskalak eta Udal zerbitzuak eskaintzeagatik Tasa eta Prezio Publikoen Ordenantzak onartzea, hala bada/ Aprobación de las Ordenanzas Fiscales y Ordenanzas de Tasas y Precios Públicos por prestación de Servicios Municipales para el ejercicio 2018.**
4. **Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako eta Gizartearekiko komunikazioko departamentuaren eta Larraulgo udalaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren onespena, entitateen kontaktu datuak lagatzeari buruzkoa./ Aprobación del convenio de colaboración en materia de cesión de datos de contacto de entidades entre el departamento de gobernanza y comunicación con la sociedad de la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Larraul.**
5. **Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
6. **Beste batzuk/Otros.**
7. **Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.**
 - 7.1. **Kataluniarekin koordinazio-guneak aurkezturiko Kataluniarekin elkartasuna adierazteko proposamenaren onespena/Aprobación de la**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

moción presentada por Kataluniaren koordinazioguneak en solidaridad con Cataluña.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- ▮ 2017 urteko irailaren 7ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate andreak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

16/2017 Alkatetza Ebazpena, irailaren 15ekoa, A.S. jaunak eginiko eskaera onestea, ebazten duena.

17/2017 Alkatetza Ebazpena, irailaren 19koa, Larraulgo Udaleko herri langilearen ezgaitasun egoeran dagoen bitartean pertsona bat kontratatzeke urgentziazko deialdia egitea, ebazten duena.

18/2017 Alkatetza Ebazpena, irailaren 8koa, 2017-KALD-000001-00 zenbakidun kreditu aldaketa espedienteari behin betiko onespina ematea, ebazten duena.

19/2017 Alkatetza Ebazpena, urriaren 5ekoa, Gipuzkoako Foru Kontratazio Zentralak izapidetutako, energia elektrikoaren hornidurarako esparru akordioaren kontratatzeke espedienteari atxikitzea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.


HIRUGARREN PUNTUA

2018 EKITALDIRAKO UDAL ORDENANTZA FISKALAK ETA UDAL ZERBITZUAK ESKAINTZEAGATIK TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZAK ONARTZEA, HALA BADA

Ikusirik 2018. urterako udal ordenantza fiskalak aztertzeke unea dela.

Ikusirik 2017 urteko irailaren 18an Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak igorritako txostena, non jasotzen den ordenantza fiskalak sortu, aldatu eta ezabatzeko jarraitu beharreko prozedimentua, batetik, eta bestetik, 2018ko ekitaldian Udala aplikatzen datorren zerga eta tasak.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak, ahobatez,



LARRAULGO UDALA
(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- 2018 urterako zergak arautzen dituzten ordenantza fiskalari dagokionez, ondorengo aldaketak onestea:

1.1.Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotak zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen ordenantza fiskala.

Ordenantzaren eranskina mantentzea erabaki da.

Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa zoru industrial edo tertziarioan: %0,30.

Gainerako hiri ondasun higiezinari aplikagarri zaion karga tasa: %0,23.

Landalur Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa: %0,60.

“Famili ugariari” dagokion hobariari buruz 3 ume edo gehiago duten familiei % 50eko hobaria eta “eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak” izateagatik % 25eko hobaria aplikatuko zaiela mantentzen da.

1.2.Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren ordain-arazpenerako zenbait ahalmen arautzen dituen ordenantza fiskala.


Zerga honen kuotak zehazteko finkatutako gutxienezko kuoten gehikuntza-koefizientea % 2,2 finkatzen da. Mantentzea proposatzen da.

1.3.Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kuota zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen Ordenantza Fiskala.

Zerga honen koefizientea %1,69-an mantentzea proposatzen da.

Ibilgailu historikoei % 50eko hobaria aplikatzen jarraitzea onesten da.

Ibilgailu mota eta potentzia	Euroak	Koefizientea
A) Turismoak:		
9 zaldi fiskal bitartekoak	31,08	% 1,69
9 - 11,99 zaldi f. bitartekoak	62,16	% 1,69
12 - 13,99 zaldi f. bitartekoak	103,60	% 1,69
14 - 15,99 zaldi f. bitartekoak	145,03	% 1,69
16 - 19,99 zaldi f. bitartekoak	186,47	% 1,69
20 zaldi fiskaletik gorakoak	227,91	% 1,69
B) Autobusak:		
21 plaza bitartekoak	140,77	% 1,69
21 - 50 plaza bitartekoak	200,50	% 1,69



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

50 plazatik gorakoak	250,63	% 1,69
C)Kamioiak:		
1.000 kg. Bitarteko karga erabilgarria	71,45	% 1,69
1.000 - 2.999 kg. bitarteko	140,77	% 1,69
2.999 - 9.999 kg. Bitarteko	200,50	% 1,69
9.999 kg-tik gorako	250,63	% 1,69
D)Traktoreak:		
16 zaldi fiskal bitartekoak	29,86	% 1,69
16 – 25 zaldi f. bitartekoak	46,93	% 1,69
25 zaldi fiskaletik gorakoak	140,77	% 1,69
E)Trakzio mekanikoko ibilgailuen atoi eta erdi-atoiak:		
750-1000 kg. bitarteko karga erabilgarria	29,86	% 1,69
1.000 - 2.999 kg. Bitarteko k.e.	46,93	% 1,69
2.999 kg.tik gorako karga e	140,77	% 1,69
F)Gainerako ibilgailuak:		
Ziklomotoreak	7,62	% 1,69
Motozikletak: 125 z.k. bitartekoak	7,62	% 1,69
Motozikletak 125 - 250 z.k. bitartek	13,05	% 1,69
Motozikletak 250 - 500 z.k. bitartek	26,11	% 1,69
Motozikletak 500 - 1.000 z.k. bitartek	52,22	% 1,69
Motozikletak 1.000 cctik gora	104,42	% 1,69

1.4.Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskala.

Mantendu egiten dira kuotak.


Baserrien berrikuntza	%2,5
Besteak:	
a)60.000,00 euro arteko aurrekontua dutenak:	%4,50
b)60.000,01 euro baino gehiagoko aurrekontua:	%5,00

HOBARIAK:

- % 50 eko hobaria, eraikuntza, instalazio eta obrek ezgaitasun bat duten pertsonen irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak errazten dituztenean.

Hobari hau aplikatzeko, baldintza hauek beteko dira:

- Ezgaitasun kalifikazioa edukitzea.
- Mugikortasun baremoan, gutxienez, 7 puntu izatea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

-Kuota zehazteko, obraren aurrekontu osoa hartuko da kontuan, baldin eta obraren helburu bakarra eraikina ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzea bada.

-Obrek eraikina berritzeko helburua badute, baina aurrekontuan beste partida batzuk ere jasotzen badira ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzeko egokitzapenez gain, dagokion partidak bakarrik hartuko dira kontuan hobari eskubidea duen kuota zehazteko. Horretarako, nahitaezkoa izango da aurrekontua ondo bereizita aurkeztea helburu hori duten obren zatian.

1.5. Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.

Karga tasa: % 6,29-tik **%6,30-era igotzea** proposatzen da.

BIGARRENA.- Tasak arautzen dituzten ordenantzei dagokionez, ondorengo aldaketak onestea:


2.1. Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskala.

2.1.1. Ur horniketa.

1.Ur horniketa	Euroak/Proposamena
1.1.Ur Kontsumoa	
1.1.1.Etxez-etxeko ur hornidura	
30m ³ .bitartekoa, hiru hilabetea	17,00€
31m ³ tik goragokoa, hiru hilabetean	0,73€/m ³ bakoitza
1.2. Azpiegitura kanona: Guztientzat, hiruhilabeteko	12,00€
1.3.Udal azpiegituraren mantentzea Guztientzat, hiruhilabeteko	10,00€
1.4.- Hasierako engantxea etxe berrietan, etxeko	120,00€

Hobariak:Gizarte ongizateak proposatuak ikus I. eranskina.

2.1.2. Zabor bilketa zerbitzua



LARRAULGO UDALA
(GIPUZKOA)

ZABORRAK	Euroak/ Proposamena
1.Etxez-etxeko bilketa, hiruhileko	37€
2. Industria, komertzio eta taberna bilketa, hiruhileko	52€
3. Etxez-etxeko bilketa, konpostaia egiten ez dutenak, hiruhileko	86€
4. Industria, komertzio eta taberna bilketa, konpostaia egiten ez dutenak, hiruhileko	120€

Hobariak: Gizarte ongizateak proposatuak ikus I. eranskina.

2.1.3. Dokumentu administratiboen igorpena:

2016 URTEAN INDARREAN EGON DIREN TARIFAK

2.1.3.1. Lizentziak, kontzesiok eta hirigintzako baimenak:

60.000 euro baino gutxiagoko aurrekontua duten obratako lizentzien izapidetzea	30 €
60.000 euro baino gehiagoko aurrekontua duten obratako lizentzien izapidetzea	50 €
Segregazio baimenak	80 €
Hirigintza kontsultak	80 €
Lehen erabilera baimena	105 €
Edozein P.E.R.I., Zati Plana, urbanizazio proiektu, xehetasun ikerketa	1600 €


2.1.3.2. Iharduera baimenak ematea:

A.1. Klasifikatutako jarduera..... 110 €

A.2. Klasifikatutako jardueraren aurretiazko komunikazioa..... 80 €

2.1.3.3. Baimenik gabeko edo ezkutuko obra baimenaren legeztapena: Obra lizentzia emateagatik ateratako tasaren % 200.

Tasa hauek mantentzea proposatzen da.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2.2.HERRIKO JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBOARI ETA HAREN APROBETXAMENDU BEREZIARI DAGOZKION TASEN ORDENANTZA FISKALA

2.2.1.Hileta zerbitzuak:

2017 URTEAN INDARREAN EGON DIREN TARIFAK

- Hezurtegiaren emakida:
-Behin-betiko emakida, plaka barne.....195,00€
- Nitxoeren emakida:
-15 urteko epean, plaka (familiak erosi beharko du),
apala,.....180,00€
-5 urte bitarteko luzapenagatik.....125,00€
- Lurperatze tasa nitxoan..... 48,00 €

Tasa hauek mantentzea proposatzen da.

2.2.2.- Udal jabari publikoa okupatzeagatik prezio publikoa: % 1,50.

2.3.- KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEA: 3 euro / orduko.

2.4.- BESTE BATZUK:

Mapa handien salmenta.....3 euro/ud.

Mapa txikien salmenta.....1 euro/ud.

Tarifa hauek mantentzea proposatzen da.

HIRUGARRENA.- 2018 ekitaldirako ondorengo Zerga Egutegia finkatzea:

1.- HOBARI ESKAERA: 2018 urteko otsailaren 1etik martxoaren 1 arte.

2.- TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUAK:
2018 urteko apirilaren 3tik ekainaren 4 arte.


3.- URA ETA ZABORREN TASA:

2018 urteko maiatzaren 1tik uztailaren 43arte.

2018 urteko abuztuaren 1tik urriaren 1 arte.

2018 urteko urriaren 29tik abenduaren 28 arte.

2019 urteko otsailaren 1etik apirilaren 1 arte.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LAUGARRENA.- Erabakitakoaren berri udal iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz ematea, 30 laneguneko epea irekiz edonork espedientea aztertu eta erreklamazioak edota iradokizunak aurkezteko, bere kasuan. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, hartutako erabakiak behin-betiko onartutzat emango dira beste erabakirik hartu gabe.

LAUGARREN PUNTUA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO GOBERNANTZAKO ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOKO DEPARTAMENTUAREN ETA LARRAULGO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN ONESPENA, ENTITATEEN KONTAKTU DATUAK LAGATZEARI BURUZKOA

Ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantza eta Herritarrekiko Komunikazioko departamentuak Gipuzkoako eragileei buruzko informazioa kudeatzeko datu-basea sortu nahi duela, Aldundiaren politikak, programak eta zerbitzuak hedatzen eta bultzatzen lagunduko diguten erakunde, enpresa, elkarte eta eragileen kontakturako datuak bilduz.

Gipuzkoako Foru Aldunditik udalerrri bakoitzeko eragileei buruzko datuak lortzeko orduan udalaren lankidetzaren behar dute, horregatik udalak datuen lagapena era egokian araututa egon dadin, lankidetzaren hitzarmena aurkeztu diote udalari onartu eta sina dezan.

Ikusirik, Larraulgo udalak ontzat hartzen duela aipaturiko hitzarmena.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo,

ERABAKITZEN DU:


LEHENA: Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako eta gizartearekiko komunikazioko departamentuaren eta Larraulgo Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren onespena, entitateen kontaktu datuak lagatzeari buruzkoa.

BIGARRENA: Larraulgo Alkate-Lehendakaria den Aneli Urbieta Etxeberria andrea, goian onartutako lankidetzaren hitzarmena sina dezan ahalmena ematea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako eta Gizartearekiko komunikazioko departamentuari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:


IBERDROLA	178,40
IBERDROLA	122,48
IBERDROLA	27,81
IBERDROLA	67,61
MOVISTAR	18,15
MOVISTAR	48,40
MOVISTAR	67,18
MOVISTAR	131,73
MOVISTAR	18,38
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	36,30
KEY-LAN	3,99
UR AGENTZIA	26,34
BULEGOAK	76,54
VICENTE	508,20
MANPEL	128,62
MAPFRE	1844,49
ENDIKA AZPIROTZ	14,93
GIPUZKOAKO URAK	4876,66
CUALTIS	484,87
DISTRIBUCIONES LOPETEGI	161,14
BERRI LANTEGIA	65,15
KIROLZER	63,85
EBA ERKIZIA	706,07
ZU ETA BIOK	979,11
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	787,41
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	862,91
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	930,28
TOLOMENDI	152,50
ULAHI	377,52
SETALDE	82,43

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **13849,45** eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

SEIGARREN PUNTUA
BESTE BATZUK



LARRAULGO UDALA
(GIPUZKOA)

6.1. UDAL HERRI LANGILEA EZGAITASUN EGOERAN DAGOEN BITARTEAN ORDEZKAPENAREN ONESPENA, HALA BADA

Udalbatza honek, aho batez, puntu hau, bilkura honetan aztertzea erabakitzen du.

Ikusirik Udal herri langilea irailaren 25 geroztik, ezgaitasun egoera batean dagoela.

Ikusirik Udal herri langilea ezgaitasun egoeran dagoen bitartean bere ordezkapena egingo duen pertsona bat kontratatu egin behar dela.

Ikusirik ordezkapena egiteko deialdia zabaldu dela, bando bidez egin da, web orrian argitaratu delarik.

Ikusirik aipaturiko deialdian, lau pertsona interesatuta agertu direla.

Ikusirik, aipaturiko lau pertsona horien artean aukeraketa bat egiteko, 3 proba egin direla, bata herriaren ezagutzari buruzkoa, bestea ahozko euskara mailari buruzkoa eta azkena proba praktikoa bat (azken hau baloratzeko, Adunako herri langilea egon delarik).

Ikusirik froga guztien emaitzak kontutan izanik, J.M.V. jaunak puntuaketa altuena lortu duela, Udalbatzari Udal herri langilea ezgaitasun egoeran dagoen bitartean, J.M.V. jaunaren kontratazioa egiteko proposamena luzatu zaiolarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:


LEHENA: Udal herri langilea ezgaitasun egoeran dagoen bitartean ordezkatzeko J.M.V. jauna kontratatzea.

BIGARRENA: Udal herri langilea ezgaitasun egoeran dagoen bitartean ordezkatzeko egindako deialdian aurkeztu diren guztiei erabaki honen berri ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

7.1. KATALUNIAREKIN KOORDINAZIOGUNEAK AURKEZTURIKO KATALUNIAREKIN ELKARTASUNA ADIERAZTEKO PROPOSAMENAREN ONESPENA

Ondoren Kataluniarekin koordinazioguneak aurrekezturiko “Kataluniarekin elkartasuna adierazteko mozioa” aurkezten da, non ondorengoa dioen:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

“Kataluniako erreferenduma dela eta, udalbatzari honako proposamen hauek egin nahi dizkiogu:

- 1.-Espainiar Gobernuak hasi duen errepresio bidea (atxiloketak, arlo ekonomikoan autonomia bertan behera uztea.....) erabat gaitzestea eta arbuizatzea.*
- 2.-Autodeterminazio eskubidea herri guztiei dagokien oinarritzko eta ezinbesteko eskubidea denez, kataluniari bere etorkizuna erabakitzeko eskubide hori dagokiola aitortzea.*
- 3.-Kataluniako erreferendumarekin elkartasuna publikoki adieraztea.*
- 4.-Udaletxean Kataluniako ikurra jartzea.”*

Ikusirik Batzarkieen artean ez dagoela adostasunik, mozioa bozkatu egiten da, ondorengo delarik emaitza:

Aldeko botoak: Urbieta, Pizarro, Sarria, Serrano eta Jauregi alkate/zinegotziak.

Kontrako botoak: Ez daude

Abstentzioak: Leon zinegotzia

Alde bozkatu duten batzarkideek 4. Puntua ez dutela onartzen azaldu dute. Beraz bozketaren emaitza ikusirik, Udalbatza honek, gehiengoaz, Kataluniarekin elkartasuna adierazteko proposamenaren 1,2 eta 3 puntuak onesten ditu.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.05 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA